

Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza emateko programa: II. Eranskina (TXEKIN)

Urtea: 2023 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena:

Enpresak sortzeko prozesuan enpresa proiektuei laguntza ematea - **BIDERAGARRITASUN PLANA**

Dirulaguntzak **GAUZAZKO LAGUNTZATZAT** hartuko dira, eta pertsona onuradunari eskubidea emango zaio enpresak sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko.

Pertsona onuradunak:

Gipuzkoan abian jarriko den enpresa bat sortzeko asmoa duten pertsonak, edozein dela ere hartzen duten forma juridikoa, eta gutxienez enplegu bat sortzeko aurreikuspena dutenak.

Diruz lagunduko diren jarduerak:

Pertsona edo talde sustatzaileari, ideia umotzeko eta Bideragarritasun planaren eratzeko prozesuan laguntzeko ekintzak, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak homologatutako entitateen bidez

Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren tasa % 100eraino izango da, ezarritako moduluen sistematik eratorzen diren kostuak hartuz oinarri gisa.

Dirulaguntzak emateko prozedura:

Lehiarik gabekoa: dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurak amaitu arte emango dira, eskaerak jaso diren ordenaren eta eska dakiekeen informazio guztia bete izanaren arabera

Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin

Bete behar diren epeak:

- **2023/01/01/- 2023/06/30 bitartean hasitako proiektuak:**
Eskaera egiteko epea: **2023ko uztailaren 14an, 12: 00etan.**
Gauzatzeko epea: **2023ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 29ra**
Justifikatzeko epea: **2023ko irailaren 29a.**



- **2023ko uztailaren 1etik 2023ko azaroaren 30ra bitartean hasitako proiektuak:**

Eskaera egiteko epea: **2023ko abenduaren 9an, 12:00etan.**

Gauzatzeko epea: **2023ko uztailaren 1etik 2024ko martxoaren 31era.**

Justifikatzeko epea: **2024ko apirilaren 5a.**

Araudi aplikagarria

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak](#). Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21an erabakiz onartu zen (2022ko uztailaren 4koa GAO, 126 zk).

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren 2023ko deialdia](#). Deialdi hori Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 31an erabakiz onartu zen (2023ko otsailak 16koa GAO, 32 zk.).

Kofinantzaketa

Programak EGFen (Europako Gizarte Funtsa) kofinantzaketa komunitarioa (% 50) du “EGF zure etorkizunean inbertitzen du goiburuaz

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitasuna/txekin>
- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943–112252
- Kudeaketa Administratiboa: 943–112218

Emaila: sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus